



Begirunea. Egonaldia. Eleaniztasuna. Errespetua. Eskubideak. Etorkizuna. Gomendioak. Gozotasuna. Harmena. Harremanak. Hurbiltasuna. Kalitatea. Konpromisoa. Komunikazioa. Lankidetzeta. Mahai inguruak. Maitasuna. Laguntza. Planak. Prebentzioa. Pazientzia. Proiektuak. Saiakuntzak. Senideak. Zainketak.

Gristasunaren anbiguotasuna atsegin izan dut beti. Beltzari optimismoz begiratzen dion gris hori, eta zuriari erronka positiboa jartzen diona. Egoera guztiak hobetu daitezkeela pentsatzeak indarra ematen dit, amets egiteko, eta lortzeko zailak diren amets horien atzetik joateko. Eroso ibiltzen naiz bi aldeetatik hoberena ateratzen. Ni baino jakitunagoa den batek esan zidan behin, «zuk aukerak bilatu eta sortu; eta izan zaitez beti zu zeu azken aukera egiten duena». Printzipio hori modu ortodoxoan aplikatzen saiatzen naiz egiten ditudan gauza askotan.

goen norbaiti, euskarria den hori, pilarea denari. Sareari zu-
lo bat egiten diotenean, edo bat-batean hausten denean, jo-
koaren erregelak aldatzen dizkigute.

Gaur ospitaleetik ateratzera nindoala, binario izate hartatik urrun nagoela sentitu dut, eta lasaitasun handia izan da. Hiru aste ziren mural hori ikusten ez nuela. Gaur arte ez naiz konturatu ordena alfabetikoan daudela hitzak eta behin baino gehiagotan errepikatuta dagoela hitz bakoitza. Goiko paragrafoan idatzita dauden hitzak aukeratu ditut beste hainbaten artetik. Aukeraketa hori egite hutsak indarra eman dit, berriro ere nire gristasunera itzultzen ari naizela sentitu dut. Borroka horretako ikusle izateak emandako ikasgaia gogorra izan da, borrokalariak miresten ditut eta jostunen lanarekin apaltasunezko esker onez nago. •

